

## VILNIUS 2017~2018

**Ostatua.** Oso garrantzitsua da ostatua denborarekin alde aurretik hartzea. Azkeneko momentuan begiraten hasten bazara arazo handiak izan ditzakezu. VGTU-ko Unibertsitateak ez ditu nahiko logela plazarik eskaintzen, iristen diren erasmuseko ikasle kopuruarekin konparatuz gero, eta logela hauen prezioa oso merkea den arren, 120 euro inguru, instalazioak ez dira oso erakargarriak eta logelak bi edo hiru pertsonentzako zuzenduta daude. Nire aholkua da, bi aukera hauetako bat, edo Corner hotelean logela bat alokatzea edo bestela zuzenean Kapital deitzen den inmobiliaria batetara joatea.

**Klima.** Vilniusen neguak sei hilabetetako irauntzen dituela kontutan hartuta, ez ahaztu hotzerako arropa eramatea. Hiriak bi irudi ezberdin ditu, batetik aipatutako neguko denboraldia, non ikasturte honetan -25 graduko minimoak izan ditugun, eta bestetik apirilera eta maiatzeko irudia, non 30 gradu inguruko tenperaturak izan ohi diren. (hilabete magikoak deitzen diete).

Neguan siberiako haizea sartzen denean, sentzazio termikoa oraindik ere baxuagoa da, eta ez da komeni kalean denbora luzean geldirik egotea. Hirian zehar, kafetegi ugari daude eta hango biztanleek neguan kafetegietara eta zentru komertzialetara joateko ohitura handia dute.

Hezetasuna nahiko altua da. Laku ugari daude inguruan eta parke eta landaretza berde asko dago.

**Garraio publikoa.** Isic txartela eskatzea gomendatzen dizut iritsi bezain laister. Autobusa, taxia eta trolebusaren bidez oso erraza da hiritik mugitzea.

Trolebusak nahiko zaharkituta dauden arren, maistasunez pasatzen dira geltokitik eta ez dute arazo askorik ematen. Hamasei euroren truke hiru hilabeterako baliagarria den baimena lor daiteke edozein kioskotan eskatuz gero, Isic txartela baduzu.

Taxiak oso merkeak dira baina ez dira inoiz telefonoz eskatu behar, kasu honetan tarifak desberdinak direlako. Eskaera Taxify edo Etaxi mugikorreko aplikazioen bidez egitea gomendatzen dizut askoz merkeago irteten delako. Adi egon, batez ere, Vilniuseko aeroportura iristen zareneko lehen eguna, handik irtetean taxista ugari itxoiten baitago zutaz aprobetxatzeko (normalean turistek mugikorreko taxiaren aplikazioa ez dutelako ezagutzen )

Autobusek ere zebitzu ona izaten dute eta trolebusarekin aipatu dudatan txartel berbera erabili daiteke, hilabete baterako edo hiru hilabetetarako baimena eskatzeko aukerarekin.

**Ekonomia.** Bizi maila pixkat merkeagoa da. Elikagaiak eta orokorrean dena, merkeagoa da baina ez diferentzia handiarekin.

**Biztanleak.** Orokorrean nahiko itxiak izan ohi dira lituanoak. Rusoen antzekoak dira, ez dute barre egiten normalean baina haiekin adiskidetasuna egiten duzunean, pentsamoldez aldatuko duzu. Gainera, Erasmus programak duen gauza onena, munduko beste herrialde askotako jende ugari ere ezagutzeko aukera edukiko duzula da.

**Hizkuntza.** Zorritzarrez lituanoen biztanleriaren zati handi batek ez daki ingelesez, 70% ak gutxi gora behera. Beraien lehen hizkuntza lituanoa da eta bigarrena errusiera. Unibertsitateek lituanozko hizkuntzaren kurtso batzuk eskeintzen dituzte. Hala ere, batzuetan ingelesa dakien norbait topatu daiteke eta bestela google traductor erabili dezakezu.

**Ikasketak.** Ikasle bakoitzak mentore bat dauka hango unibertsitateak izendatuta, tramiteekin edo edozein dudarekin, itzulpenekin lagundu zaitzakeena. Ingelesezko oinarrizko maila baduzu (First-aren maila ingurukoa) ez duzu arazorik edukiko ingelesezko klaseak ulertzeko. Irakasleak nahiko onak izan ohi dira.

**Aktibitateak.** Kultura handiko hiria da. Aukera asko dago egiteko. Kosta ingurua oso polita da eta museo ugari dago bisitatzeko. Gauean festan ireteteko pub ugari daude eta oso giro ona egoten da. Bidaia asko egiteko aukera izango duzu ere bai, Vilniuseko aeroportuak konexio merkeak izaten dituelako, adibidez Poloniara edo Noruegara irteera bat egin nahi baduzu. Scanbalt konpainia ere gomendatzen dizut, Laponiara eta Rusiarako bidaiak antolatzen dituzte eta pena merezi dute benetan.